AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

AMOROTOKO "UDALETXEAREN ERABERRITZE JASANGARRIA" DEITURIKO PROIEKOTARI DAGOKION HORNIDURA ETA INSTALAZIOA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA, PRESAKO IZAPIDETZEAREN ETA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea honakoa da: Amorotoko udaletxean egungo gasolio-errekuntzan oinarritutako galdara kendu eta aerotermia-sistema bat barneratzea. Aerotermiaz gain, sotoko hoditeria hidrauliko osoa berrituko da aerotermiak hodi-sekzio handiagoa eskatzen duelako. Gainera, erradiadoreetan zonifikazio-sistema bat martxan jartzeko balbula berriak eta honen kontrola instalatuko dira. Azkenik, pleno aretoko leihoak ere berrituko dira.

CPV kodeak:

42512300-1 Klimatizazio-unitateak

50721000-5 Berokuntza-instalazioak prest jartzea

45331000-6 Berokuntzako, aireztapeneko eta aire girotuko instalazio-lanak

Ez da bidezkoa kontratuaren objektua lotetan banatzea, kontratuaren objektua bakarra eta zatiezina delako.

2. KONTRATATZEKO BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA

Memorian jasota daude Administrazio honek baldintza-agiri honetan aipatzen den kontratua egiteko izan dituen arrazoiak.

3. GAUZATZEKO EPEA

Kontratu honen xede den hornidura entregatzeko epea hiru hilabetekoa izango da, birplanteaketa-akta formalizatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Kontratista berandutze-egoeran dagoela ulertuko da aipatutako epea igaro bada, eta, horretarako, ez da beharrezkoa izango Administrazioak aldez aurretik agindeia egitea.

4. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 30.310,65 eurokoa izango da, gehi 6.365,24 euro, BEZari dagozkionak. Lizitatzaileek aurrekontu hori hobetu ahal izango dute.

Kontratuaren prezioak unitateko prezioen zerrenda bat izango du, behar bezala banakatuta, eta prezio horiek arautuko dute kontratua gauzatzen den bitartean. Prezio horiek aurkezten ez badira, lizitatzaileak Administrazioaren aurrekontuan agertzen direnak aurkezten dituela ulertuko da, baldin eta proposamen ekonomikoan jasotako prezioaren beherapen-ehuneko berean eragiten badie.

5. FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, finantzaketa aurtengo aurrekontuaren kargura egitea aurreikusi da, 62501.920 aurrekontu-aplikazioan.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

6. ORDAINKETA-ARAUBIDEA

Horniduraren prezioa entregatu eta jaso ondoren ordainduko da, dagokion faktura aurkeztu ondoren.

SPKLren hogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren arabera, eta dagozkion fakturetan jasota gera dadin, adierazten da kontu-hartzailetza dela kontabilitate publikoaren arloan eskumena duen administrazio-organoa, eta Alkatetza dela kontratazio-organoa.

7. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratu honetan ez dira prezioak berrikusiko, SPKLren 103.1 artikuluaren arabera.

8. BERMEAK

Kontratuaren esleipendunak, bere gain hartutako betebeharrak betetzen direla bermatzeko, behin betiko berme bat eratu beharko du, esleipen-zenbatekoaren % 5ekoa, BEZik gabe.

Berme hori eratzeko epea 17. klausulan aipatzen den errekerimenduan adierazitakoa izango da, eta SPKLren 108. artikuluan ezarritako edozein bitartekoren bidez eratu ahal izango da. Eraketa bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoen bidez egiaztatu ahal izango da. Lizitatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik baldintza hori betetzen ez bada, Administrazioak ez du esleipena bere alde egingo.

Bermea, osoa zein partziala, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 111. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuli edo ezereztuko da, berme-epea amaitu eta adjudikaziodunak kontratu-betebehar guztiak bete ondoren.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

9.- ESLEITZEKO PROZEDURA

Kontratu hau prozedura irekiaren bidez esleituko da, presakoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legean aurreikusitakoaren arabera, eta, hori izapidetzeko, lege horretan eta hura garatzeko arauetan jasotako jarduketei jarraituko zaie.

10. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA

Lizitazio hau bitarteko elektronikoen bidez izapidetuko da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen xedapenekin bat etorriz. Ondorioz, Udalaren eta lizitatzaileen arteko harremana ere bitarteko horien bidez gauzatuko da.

11. JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK

Espediente honi buruzko jakinarazpen eta komunikazio guztiak elektronikoki egingo dira, honako prozesu honi jarraituz:

1.) Hartzailearen eskura jartzea.

2.) Jakinarazpenaren edo komunikazioaren edukirako sarbidea.

Epeak jakinarazpen-abisutik hasiko dira zenbatzen (jakinarazpenaren xede den egintza kontratatzailearen profilean egun berean argitaratzen bada), edo jakinarazpena jasotzen denetik (egintza ez bada egun berean argitaratzen kontratatzailearen profilean).

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

Jakinarazpena eskura jartzen denetik hamar egun natural igarotakoan, hartzaileak ez badu onartzen edo uko egiten badio, iraungitzat joko da eta jakinarazpenaren izapidea formalki betetzat joko da.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridikoek, baldin eta behar den kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala badute eta SPKLren 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuren baten eraginpean ez badaude. Kaudimena 175. klausulan ezarritako bitartekoen arabera egiaztatu eta ebaluatuko da.

Halaber, beren kabuz edo baimendutako pertsona batek ordezkatuta egin ahal izango dute, horretarako emandako ahalorde askietsiaren bidez. Pertsona juridiko baten ordezkari gisa haren kideetako bat agertzen bada, dokumentu bidez justifikatu beharko du horretarako ahalmena duela. Kasu batean zein bestean, ordezkariari aipatutako kontratatzeko ezintasun-arrazoiek eragiten diote.

Pertsona horiek, halaber, kontratu honen xede den jarduera edo prestazioa egiteko eskatzen den enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute.

13.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Honako hauek dira kontratua esleitzeko oinarri izango diren eskaintzak BALORATZEKO IRIZPIDEAK:

1.- AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK (0-30 puntu)

Meoria teknikoa. Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Hornitu eta instalatu beharreko elementuen kalitatea, baldintza teknikoen agirian deskribatutako ezaugarriak bete behar baitituzte. (10 puntu)
- Jatorrizko proposamen teknikoarekiko hobekuntzak, aurrekontua handitu gabe. Baldintza teknikoen agirian zehaztutakoa garatzea ez da hobekuntzatzat hartuko, ezta Erregelamenduak eskatutako gutxieneko baldintzak hala aurkeztea ere (10 puntu).
- Elementuak instalatzeko erabiliko diren instalazioen plangintza eta proposamena, egindako bisitan azaldutakoa kontuan hartuta (5 puntu).
- Kontratua gauzatzeko bideratutako giza baliabideak, bai eta antzeko instalazio-lanetan izandako esperientzia ere (5 puntu).

2.- AUTOMATIKOKI KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK (0-70 puntu)

ESKAINTZA EKONOMIKOA Gehienez ere 60 puntu

Proposamen ekonomikoaren 60 puntuak (BEZik gabe) formula honen arabera banatuko dira:

Proposamen ekonomikoari (BEZ gabe) dagozkion 60 puntuak interpolazio linealaren bidez banatuko dira, hau da, (Baja maximoa, 60 puntu) eta (Baja Zero, puntuazio minimoa) puntuen artean egindako barruan (ikusi beheko grafikoa).

Honako hauek dira puntuak

Amin-Aurrekontutik merkeena (Bmax), puntuazio maximoa jasoko duena (Pmax puntu=60)


AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

Amax-Lizitzaioaren aurrekontuaren prezioa, puntuazio minimoa jasoko duena (Pmin puntu), formula honen arabera:

Pmin=Pmax (1-Bmax)

Bmax= (Amax-Amin)/Amax

Aipatutako interpolazio linealaren lerroa egiteko, onartutako eskaintza bakarrik hartuko dira kontutan,



Hasiera batean, neurriz kanpokotzat edo anormaltzat hartuko dira onartutako eskaintzen prezio guztien batez besteko aritmetikoa baino % 10 txikiagoak diren eskaintzak, eta, adierazpena egiteko, ustez eskaintza horietan sartuta dauden lizitatzaile guztiei eskatu beharko zaie informazioa, bai eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa ere.

Baloratutako eskaintza desberdinen artean berdinketa badago, kaudimen teknikoa egiaztatzeko unean plantillan % 2tik gorako desgaitasuna duten langileak dituzten enpresek aurkeztutako proposamenek izango dute lehentasuna kontratuak adjudikatzeko orduan, betiere proposamen horiek adjudikaziorako oinarri diren irizpideen ikuspegitik abantailatsuenak direnen parekoak badira.

Berdinketak jarraitzen badu, lehentasuna emango zaie kontratua esleitzeko garaian plantillan emakumeen proportzio handiena dutela egiaztatzen duten enpresei.

BERME-EPEA LUZATZEA 10 puntura arte

25. klausulan kontratu honetarako ezarritako berme-epea luzatzen den urte oso bakoitzeko (2 urte) 2 puntu emango dira, gehienez 10 puntura arte.

Bisita horren berri eman beharko zaie udaleko arduradun teknikoei, jasota geratu eta akta egin ahal izateko, eta, horrela, esleitutako puntuazioa lortuko da.

3. NAHITAEZKO LANDA-BISITA ANTOLATUAN EGOTEA.

Amorotoko Udalak antolatutako bisita teknikora aurkeztu beharko da nahitaez, herriko argiteria-instalazioak ezagutzeko eta, horrela, lizitazio-proposamena tokian bertan ikusitakoarekin prestatu ahal izateko.

Udaleko arduradun teknikoek bisita horren berri izango dute, idatziz jasota uzteko eta akta sinatu bat egiteko.

Eguna: 2025eko azaroaren 28an egingo da, 11:30etan

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEEN BALORAZIOAN LORTU BEHARREKO GUTXIENEKO PUNTUAZIOAREN ATALASEA

SPKLren 124. artikuluan xedatutakoaren arabera, balorazio orokorrean onartuak izateko, lizitatzaileek gutxieneko puntuazio-atalase bat lortu beharko dute automatikoki edo formulen bidez kuantifikatu ezin diren irizpideen balorazioan; horrela, Kontratazio Mahaiak ez ditu kontuan hartuko irizpide honetan gutxienez 20 puntura iristen ez diren lizitatzaileen proposamenak: «Automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideak».

14. KONTRATAZIO-MAHAIA

Amorotoko Udalaren kontratazio-mahai iraunkorra.

15. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK, ETA PLEGUETARAKO SARBIDEA

Lizitazio hau udal honen kontratatzaile-profilean iragarriko da, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman ostatatuta.

Proposamenak elektronikoki aurkeztu beharko dira aipatutako plataformaren bidez, hamar egun naturaleko epean, iragarki hori agertzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, aipatutako epearen azken eguneko 14:00ak arte.

Udal honen kontratatzailearen profilera sartzeko, honako helbide honetara jo ahal izango da: www.amoroto.eus. Leku horretan bertan, baldintza-agiriak eta dokumentazio osagarria eskuratu ahal izango dira.

Lizitatzaileek baldintza-agiriei edo, hala badagokio, dokumentazio osagarriari buruz eskatzen duten informazio gehigarria proposamenak jasotzeko ezarritako azken eguna baino sei egun lehenago emango da, betiere eskaera proposamenak jasotzeko lehen adierazitako epea amaitu baino gutxienez 6 egun lehenago egin bada.

Lizitazio-prozedura honetan ez da onartuko deskribatutako bitarteko elektronikoen bidez aurkezten ez den eskaintzarik. Horretarako, ezinbestekoa da Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren edo Sektore Publikoaren Kontratazio Plataformaren erabiltzaile erregistratua izatea.

Eskaintza baten edozein dokumentu ezin bada behar bezala ikusi, lizitatzaileak okerreko fitxategian sartutako dokumentua formatu digitalean aurkeztu ahal izango du, inguruabar hori jakinarazten zaionetik gehienez 24 orduko epean. Geroago aurkeztutako dokumentuak ezingo du aldaketarik izan eskaintzan sartutako jatorrizkoarekiko. Kontratazio-organoak egiaztatzen badu dokumentuak aldaketak izan dituela, lizitatzailearen eskaintza ez da kontuan hartuko.

Proposamenak administrazio-klausula partikularren agiri honetan aurreikusitakoaren araberakoak izan beharko dira, eta horiek aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen dituela klausula edo baldintza horiek, inolako salbuespenik eta erreserbarik gabe, bai eta Mahaiari eta Kontratazio Organoari baimena ematen diela Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan dauden datuak kontsultatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du, baina aldaerak ere onartu ahal izango dira. Era berean, ezin izango du proposamenik sinatu aldi baterako enpresa-elkarte batean,

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

banaka egin badu, ez eta aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan parte hartu ere. Arau horiek hautsiz gero, lizitatzaileak izenpetutako proposamen guztiak ez dira onartuko.

Informazio publikoa eskuratzearen arloan indarrean dagoen legerian eta adjudikazioaren publizitateari eta hautagaiei eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruzko SPKLren xedapenetan ezarritakoa alde batera utzi gabe, hautagaiek konfidentzialtzat izendatu ahal izango dute eskaintzak egitean haiek emandako informazioaren zati bat, bereziki sekretu tekniko edo komertzialei eta alderdi konfidentzialei buruzkoa. Udalak ezingo du informazio hori zabaldu dagokion lizitatzailearen baimenik gabe.

16. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

Lizitatzaileek hiru gutun-azal elektroniko aurkeztu beharko dituzte, lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta, eta horietako bakoitzerako klausula honetan zehazten den edukia dutela.

«A» GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA, KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Gutun-azal horrek agiri hauek izango ditu:

a) Helbide elektroniko gaitua.

Gaitutako helbide elektroniko bat izendatzea, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, non egingo baitira kontratazio-espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak.

b) Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena.

Deklarazio horretan, Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintzak betetzen dituela adieraziko du lizitatzaileak, bai eta kontratua eskuratzeko baldintza-agiri honetan eta, bereziki, baldintza-agiri honen 12. eta 17. klausuletan ezarritako betekizunak betetzen dituela ere. Adierazpena Europako Kontratazio Agiri Bakarraren (EKAB) formularioaren araberakoa izango da. Inprimaki hori betetzeko, baldintza-agiri honen I. eranskinean agertzen diren jarraibideak bete daitezke.

Hala ere, kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak, prozedura behar bezala amaitzen dela bermatzeko, eskatu ahal izango du, esleipena egin aurreko edozein unetan, lizitatzaileek aurkez dezatela baldintza-agiri honetan kontratuaren esleipendun izateko aipatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

c) Aldi baterako enpresa-elkarte batean (ABEE) lehiatzen diren operadore ekonomikoen kasuan, kide bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du. Era berean, kontratuaren esleipendun izanez gero ABEEa formalki eratzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute, eta enpresa horietako bakoitzak ABEE horretan dituen izenak, inguruabarrak eta partaidetza zehaztu beharko dituzte.

d) SPKLren 75. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitatzaileak beste entitate batzuen kaudimena eta baliabideak erabiltzen baditu, horietako bakoitzak ere erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du.

Kaudimen-baldintza desberdinak dituen sortakako banaketaren kasuan, kaudimen-baldintza berak aplikatzen zaizkion sorta edo sorta-talde bakoitzeko erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

Legean eta baldintza-agiri honetan eskatzen diren nortasun-, gaitasun- eta kaudimen-baldintzak betetzen diren ikusteko une erabakigarria proposamenak aurkezteko epea amaitzen den unea izango da.

«B» GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA: BALIO-IRITZIEN BIDEZ BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Gutun-azal horretan, balio-iritzi batean oinarrituta baloratzen diren irizpideei buruzko dokumentuak jasoko dira, baldintza-agiri honen 13. klausulan adierazitakoak.

«C» GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA. AUTOMATIKOKI BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Gutun-azal horrek agiri hauek izango ditu:

a) II. eranskineko ereduaren araberako proposamen ekonomikoa.

b) Unitateko prezioen zerrenda, hala badagokio.

c) Bermea zabaltzeko proposamena, III. eranskineko ereduaren araberakoa.

17.- AURKEZTUTAKO AGIRIAK IREKITZEA ETA TRATATZEA, ENPRESAK HAUTATZEA ETA ESKAINTZAK BALORATZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan, honako jarduketa hauek egingo dira:

Mahaiak «A» gutun-azala elektronikoki irekiko du, eta bertan jasotako dokumentazioa kalifikatuko du. SPKLren 141.2 artikulua aplikatuz, mahaiak ikusten badu zuzendu daitezkeen akatsak daudela aurkeztutako dokumentuetan, eragindako lizitatzaileei jakinaraziko die, eta hiru egun naturaleko epea emango die akats horiek zuzentzeko.

Gainera, lizitatzaileei jakinarazten zaizkien zuzenketa-eskaerak Udalaren kontratatzailearen profilean eta Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman ere iragarriko dira.

«B» gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa, balio-judizio baten mende dauden irizpideak jasotzen dituena, kontratatzailearen profilean argitaratzen den leku, egun eta orduan irekiko da, gutxienez 48 ordu lehenago. Ondorio horietarako, dokumentazio horretan dauden akatsak edo omisioak zuzendu behar badira, mahaiak gehienez ere hiru egun balioduneko epea emango du hori egiteko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

«B» gutun-azalean jasotako dokumentazioa ireki eta baloratu ondoren, Kontratazio Mahaiak «C» gutun-azala irekiko du, Udalaren kontratatzailearen profilean iragarritako leku, egun eta orduan.

Ondorio horietarako, dokumentazio horretan dauden akatsak edo omisioak zuzendu behar badira, mahaiak gehienez ere hiru egun balioduneko epea emango du hori egiteko, aipatutako 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikulua aplikatuz, analogiaz.

Ekitaldi horretan, eskaintza bakoitzean balio-judizio baten mende dauden irizpideei esleitutako balorazioa jakinaraziko da.

Irizpide guztiak baloratu ondoren, kontratazio-mahaiak aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu, handienetik txikienera, eta, egin beharrekoak egin ondoren, kontratua esleitzeko proposamena igorriko dio kontratazio-organoari.

Kontratua esleitzeko proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko proposatutako lizitatzailearen alde, eta ez ditu Administrazioaren aurrean eskuratuko kontratua formalizatu arte.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

SPKLren 149. artikuluan aurreikusitakoaren babesean, nabarmenki baxutzat jo daitezkeen proposamen bat edo batzuk identifikatzen direnean, eskaintzak anormalki baxuak direla deklaratzeko, aldez aurretik entzun egin beharko zaie aurkeztu dituen lizitatzaileari edo, hala badagokio, lizitatzaileei, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa beharko da. Kasu horretan, kontratazio-organoak, lizitatzaileak egindako justifikazioa eta eskatutako txostenak ikusita, esleipena administrazioaren nahierara bete daitekeen eskaintzarik abantailatsuenari esleitzea erabakiko du.

Aitzitik, kontratazio-organoak uste badu eskaintza ezin dela bete baja anormalak sartu direlako, sailkapenetik kanpo utziko du, eta eskaintza onenaren alde esleituko du, sailkatu diren ordenaren arabera.

Egindako guztia espedientean jasoko da, nahitaez egin beharreko akten bidez.

Aurreko jarduketak egin ondoren, kontratazio-zerbitzuek lehen sailkatuari eskatuko diote jarduketa hauek egiteko edo dokumentu hauek aurkezteko, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita:

a) Parte-hartzailearen edo haren ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten ordezkari gisa jarduten bada, notario-ahalordea, udal honek askietsia.

b) Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, eraketa- edo aldaketa-eskritura, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, inskripzioa aplikatzekoa den merkataritza-legeriaren arabera eska daitekeenean. Hala ez bada, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, dagokion erregistro ofizialean inskribatutako eratze-eskritura edo -agiria, estatutuak edo jarduera arautzen duten arauak jasotzen dituen sortze-egintza aurkeztu beharko da.

Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko estatu kideetako enpresaburuen kasuan, dagokien erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera, edo erantzukizunpeko adierazpen bat edo ziurtagiri bat aurkeztuz, aplikatu beharreko Europar Batasuneko xedapenen arabera.

Atzerriko gainerako enpresaburuek jarduteko gaitasuna dutela egiaztatu beharko dute, Espainiak dagokion estatuan duen diplomaziako misio iraunkorraren edo enpresaren egoitzari dagokion kontsuletxeko bulegoaren txostenarekin.

c) EJZn alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean. Horretarako, alta-agiria aurkeztu beharko da, uneko ekitaldikoa bada, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Bi kasuetan, erantzukizunpeko adierazpen bat ere aurkeztu beharko da, zerga horren matrikulan baja hartu ez duela adierazten duena.

d) Hainbat enpresaburu aldi baterako enpresa-elkarte bat eratuz aurkezten badira lizitaziora, enpresa bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Era berean, ABEEko kide bakoitzak egingo lukeen xedearen zatia adieraziko dute proposamenean, horien guztien kaudimen-betekizunak zehazteko eta egiaztatzeko.

e) Atzerriko enpresek, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako, Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla eta, hala balegokio, lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diotela adierazten duen adierazpena.

f) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen agiria, edo zuzenean eskuratzeko baimena ematea kontratazio-organoari.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

g) Behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria.

Aurreko a), b) eta d) letretan adierazitako inguruabarrak Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroaren ziurtagiri baten bidez, Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Estatuko Erregistro Ofizialaren ziurtagiri baten bidez edo Europar Batasuneko ziurtagiri baten bidez egiaztatu ahal izango dira, hori guztia SPKLren 96. eta 97. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Apartatu honetan aipatutako ziurtagiriak elektronikoki eman ahal izango dira.

Errekerimendua adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatzaileak eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta, kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeraren arabera.

Apartatu honetan aipatutako errekerimenduaren ondoren aurkeztutako dokumentazioak zuzentzeko moduko akatsik badu, hiru egun naturaleko epea emango da zuzentzeko, eta zuzenean jakinaraziko zaio lizitatzaileari, eta udalaren kontratatzaile-profilean ere iragarriko da.

18. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Kontratazio-organoak kontratua eskaintza onena aurkezten duen lizitatzaileari esleitzea erabakiko du, lehen sailkatuari eskatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan, SPKLren 150.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

Esleipena lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie, eta erakunde honen kontratatzaile-profilean argitaratuko da.

Kontratua perfekzionatzeko, lizitazio-baldintzetara zehatz-mehatz egokitzen den administrazio-dokumentu bat formalizatuko da, eta dokumentu hori titulu nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eskatu ahal izango du kontratistak, eta kasu horretan bere kontura izango dira dagozkion gastuak.

Hamabost egun horiek igaro eta errekurtsorik aurkezten ez bada, errekerimendua egingo zaio esleipendunari, gehienez ere bost egun naturaleko epean formaliza dezan kontratua, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Azkenik, formalizazio-agirian jasotzen den epearen barruan, zeina ez baita hilabetekoa baino luzeagoa izango sinatzen denetik, esleipenduna Administrazio honetan agertu beharko da proiektuaren zuinketa egiaztatzeko eta dagokion akta sinatzeko. Une horretatik aurrera hasiko da kontatzen kontratua gauzatzeko epea.

19. KONTRATUA EZ EGITEKO ERABAKIA ETA PROZEDURAN ATZERA EGITEA

SPKLren 152. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kontratazio-organoak, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik, kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartu ahal izango du. Halaber, prozeduran atzera egin ahal izango du, baldin eta ikusten badu zuzendu ezin den arau-hauste bat egin dela kontratua prestatzeko arauetan edo adjudikazio-prozedura erregulatzen duten arauetan.

Kontratua ez egiteko edo prozeduran atzera egiteko erabakia kontratua formalizatu aurretik hartu beharko da, aipatutako artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

20. KONTRATUA GAUZATZEKO ARAUBIDE OROKORRA

Udal honek finkatutako lekuan entregatu beharko dira ondasunak, agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian aurreikusitakoaren arabera.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

Kontratistak arriskua eta mentura bere gain hartuta gauzatuko du kontratua, eta ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango ondasunak administrazioari entregatu aurretik galdu, matxuratu edo kaltetzen badira, salbu eta administrazioa ondasunak hartzeko orduan berandutu bada.

Administrazioaren zuzendaritzapean, ikuskaritzapean eta kontrolpean gauzatuko da kontratua, eta hark idatziz zein ahoz baliatuko ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo haren menpeko pertsonei egotz dakizkiekeen egite edo ez-egiteengatik kontratuaren martxa ona arriskuan jartzen bada, Administrazioak kontratua gauzatzean ordena egokia lortzeko edo berrezartzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko eskatu ahal izango du.

SPKLren 202.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kontratu hau egikaritzeko, honako exekuzio-baldintza berezi hauek eskatuko dira (sozialak, lanekoak, etikoak, ingurumenekoak edo bestelakoak):

Hizkuntzak.- Botere adjudikatzailearen eta kontratistaren arteko harremanetan normalean euskara erabiliko da. Kontratua gauzatzeari dagokionez, "normalean euskara erabiltzea" honako hau da:

a) Ahozko komunikazioetan, euskaraz dakiten langileek euskaraz egingo dute hasiera batean, baldin eta kontratua betearazteko eginkizunetan ari badira botere adjudikatzailearekin. Botere adjudikatzaileak euskaraz hitz egiten badie kontratuaren betearazpenari atxikitako langileei eta langile horiek ez badute hizkuntza hori behar bezala ezagutzen, kontratua gauzatzeaz arduratzen den enpresak berehala eman beharko dizkie botere adjudikatzailearekin harremana euskaraz izan ahal izateko behar diren bitartekoak edo euskaraz jarduteko hizkuntza-gaitasuna duten langileak.

b) Idatzizko komunikazioak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara aukeratzen badute.

Sozialak edo enpleguari buruzkoak: baldintza orokorren 28.2 klausulan jasotakoak, Zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legearen 7. artikulua.

Garatu beharreko prestazioak lan-ordenantza edo hitzarmen kolektibo bati lotuta badaude, kontratista behartuta dago dagokion lan-ordenantzako eta hitzarmen kolektiboko xedapenak betetzera.

Enpresa kontratistak langileen bizitzari, osotasunari eta osasunari eragin diezaieketen arriskuak ahalik eta ondoen prebenitzeko behar diren laneko segurtasun- eta higiene-neurri guztiak hartuko ditu.

Ingurumenari buruzkoak: enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du ingurumen-arauak eta -betekizunak betetzeko eta bere jarduerak eragindako ingurumen-inpaktuak minimizatzeko.

Berdintasun-neurriak: enpresa kontratistak edo azpikontratistak emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatuko du tratuan, enplegua lortzeko aukeran, sailkapen profesionalean, sustapenean, iraunkortasunean, prestakuntzan, azkentzean, ordainsarietan, lanaren kalitatean eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupenean eta antolaketan.

Baldintza horiek funtsezko kontratu-betebehartzat hartzen dira, eta, beraz, SPKLren 201. artikuluan aurreikusitakoaren babesean, baldintza horiek ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoitzat hartu ahal izango da, lege horren 211.1.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.

21. KONTRATISTAREN LAN-BETEBEHARRAK

Kontratistak nahitaez bete beharko ditu lanaren, gizarte-segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden lege-xedapenak, bai eta aplikatu beharreko sektoreko

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

hitzarmen kolektiboaren araberako soldata-baldintzak ere, hori guztia kontratu honen xede diren horniduretan lan egiten duten langileei dagokienez. Administrazioa ez-betetze horren erantzukizunetik salbuetsita geratuko da.

22. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA GAUZATZEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK

SPKLren 196. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratista izango da kontratua gauzatzeko egin behar diren eragiketen ondorioz sortzen diren kalte-galeren erantzulea.

23. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, SPKLren 205. artikuluan berariaz aurreikusitako inguruabarretako bat gertatzen denean, lege horren 203., 206. eta 207. artikuluetan agindutakoarekin bat etorriz, eta, betiere, horrekin lizitazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

Arestian aipatutako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat.

24. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honek datu pertsonalak eskuratzea badakar, kontratistak Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorretik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu, bai eta SPKLren hogeita bosgarren xedapen gehigarritik eratorritakoak ere, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta hura garatzeko araudiarekin lotuta.

25. HORNIDURA JASOTZEA ETA BERME-EPEA

Hornidura entregatzen denetik gehienez ere hilabeteko epean, harrera-egintza formal eta positiboa egingo da.

Hornidura ez badago hartzeko moduan, berariaz jasoko da hori, eta kontratistari jarraibideak emango zaizkio akatsak zuzen ditzan edo beste hornidura bat egin dezan itundutakoaren arabera. Konponketa edo ordezkapena egiten ez bada, administrazioak kontratistaren kontu-hornidura utziko du, eta ez du ordaintzeko betebeharrik izango, edo ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea eskuratuko du.

Era berean, bi urteko epea ezartzen da, harrera formalaren egunetik zenbatzen hasita, berme gisa, SPKLn eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean aurreikusitako ondorioetarako.

Administrazioak, berme-epean, akatsak edo hutsak dituzten hornitutako ondasunak birjartzeko edo konpontzeko eskubidea izango du, hori nahikoa bada.

Baldin eta administrazioak, berme-epean, ikusten badu hornitutako ondasunak ez direla egokiak lortu nahi den helbururako kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo hutsen ondorioz, eta uste badu ondasunok birjartzea edo konpontzea ez dela nahikoa helburu hori lortzeko, atzera bota ahal izango ditu epe horren barruan, eta kontratistaren kontura utzi.

26. EZ BETETZEAGATIK KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK

A. Kontratua gauzatzeko epeak ez betetzea

Baldin eta kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, berandutu egin bada kontratua gauzatzeko epean, bai guztizko epean, bai epe partzialetan, administrazioak bi aukera izango ditu:

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

kontratua suntsiarazi, bermea galduta, edo zigorrak ezarri, proportzio honetan: 0,60 euro eguneko kontratuaren prezioaren 1.000 euroko, BEZik gabe.

Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren ehuneko 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua suntsiarazteko edo, zigor gehiago ezarrita, kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzeko.

B. Prestazioen gauzatze partziala ez betetzea

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan zehaztutako prestazioen gauzatze partziala bete ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: edo kontratua suntsiarazi, edo kontratuaren prezio osoaren ehuneko 10eko zigorra ezarri.

Prestazioa behar bezala betetzen ez bada, Administrazioak zigorrak ezarri ahal izango ditu, baina penalizazio bakoitzaren zenbatekoa ez da kontratuaren prezioaren ehuneko 10etik gorakoa izango, BEZik gabe, eta penalizazio horien guztizkoak ezin izango du hitzartutako prezioaren ehuneko 50 gainditu.

D. Ingurumen-, gizarte- edo lan-arloetako betebeharrak ez betetzea. Kontratistak ingurumen-, gizarte- edo lan-arloan dituen betebeharrak betetzen ez baditu, bereziki soldaten ordainketan behin eta berriz atzeratzea edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritakoak baino soldata-baldintza txikiagoak aplikatzea astuna eta dolozkoa bada, Administrazioak, SPKLren 201. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, penalizazioak ezarri ahal izango ditu haietako bakoitzaren zenbatekoa ez bada kontratuaren prezioaren ehuneko 10etik gorakoa, BEZik gabe, eta penalizazio horien guztizkoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren ehuneko 50.

E. Azpikontratistekiko betebeharrak ez betetzea

SPKLren 217. artikuluan xedatutakoa alde batera utzi gabe, kontratistak azpikontratistekin dituen betebeharrak betetzen ez baditu, Administrazioak zigor bat ezarri ahal izango du. Zigor hori ezin izango da kontratuaren prezioaren ehuneko 10 baino handiagoa izan, BEZik gabe, eta, guztira, ezin izango da kontratuaren prezioaren ehuneko 50 baino handiagoa izan.

27. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Hornidura-kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211. eta 306. artikuluetan ezarritakoak.

28. KONTRATUA LAGATZEA

Kontratutik sortutako eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio kontratistak, baldin eta:

a) Lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarriak izan ez direnean.

b) lagapenak ez badakar merkatuko lehiaren benetako murrizketa,

c) Lagapenak ez ekartzea kontratistaren ezaugarrien funtsezko aldaketarik, ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementuak badira.

d) lagapena SPKLren 214.2 artikuluan jasotako betekizunen eta eskakizunen arabera egiten denean.

29. AZPIKONTRATAZIOA

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

Kontratistak hirugarrenekin azpikontratatu ahal izango du prestazioaren zati bat. Nolanahi ere, azpikontratazio horrek Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 215. eta 216. artikuluetako baldintzak bete beharko ditu.

30. KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egiten den kontratua administratiboa izango da, eta baldintza-agiri honek eta harekin batera doan gainerako dokumentazio teknikoak arautuko dute. Bertan aurreikusten ez den guztirako, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoa beteko da, eta, lege horren aurka ez doan guztian, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorrean (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartua), maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuan (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duena) eta, hala badagokio, administrazio publikoen kontratazioari aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritakoa aplikatuko da.

Administrazio Klausula Partikularren Plegu honen eta espedienteari erantsitako gainerako dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik badago, Plegu honetan xedatutakoa gailenduko da.

31. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK

Administrazioari dagozkio honako prerrogatiba hauek: kontratua interpretatzea; kontratua betetzeak sortzen dituen zalantzak ebaztea; kontratua interes publikoko arrazoiengatik aldatzea; kontratua egikaritzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna deklaratzea; kontratua gauzatzea etetea; kontratua suntsiaraztea erabakitzea, eta suntsiaraztearen ondorioak zehaztea, betiere SPKLn eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barruan eta bertan ezarritako betekizunei eta ondorioei lotuta.

32. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honetatik erator daitezkeen auzi eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu, eta haren erabakiek amaiera emango diote administrazio-bideari, eta zuzenean aurkaratu ahal izango dira administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, hargatik eragotzi gabe, hala badagokio, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 44. artikulutik 60. artikulura bitartean araututako kontratazio-arloko errekurtso berezia edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean araututako edozein errekurtso aurkeztu ahal izatea.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

I. ERANSKINA.

KONTRATATZEKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA ADIERAZTEKO EREDUA

EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA (EKAB) SARTU. AGIRI HORI BETETZEKO, JARRAIBIDE HAUEK BETE BEHARKO DIRA:

Erantzukizunpeko adierazpenaren eranskina Europako Kontratazio Agiri Bakarraren eredu normalizatuaren bidez bete ahal izateko, urrats hauek egin beharko dira:

1.- Deskargatu zure ekipoan Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman eskuragarri dagoen DEUC.xml fitxategia (lizitazio honen eranskinen erlaitza).

2.- Ireki esteka hau: https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd

3.- Hautatu «gaztelania» hizkuntza.

4.- Hautatu «operadore ekonomikoa naiz» aukera. 5.- Hautatu «EKAB inportatu» aukera.

6.- DEUC.xml fitxategia kargatzea, aldez aurretik ekipoan deskargatuta (1. urratsa). 7.- Hautatu herrialdea eta sakatu «hurrengoa».

8.- EKAB agirian dagozkion atalak bete. 9.- Dokumentua inprimatu eta sinatzea.

10.- Dokumentu hori, behar bezala beteta eta sinatuta,

gainerako lizitazio-agiriak, deialdia arautzen duten baldintza-agirietan ezarritakoaren arabera, eta deialdian ezarritako epearen barruan.

11.- Lote bat baino gehiago dituen kontratua bada, lizitatzen den lote bakoitzerako deklarazio bat bete beharko du.

12.- ABEE batean taldekatutako lizitazioan parte hartzen denean, dokumentu bat bete beharko da ABEEa osatzen duen enpresa bakoitzeko.

13.- Lizitatzaileak kontratua egiteko behar den kaudimena egiaztatzen badu, beste entitate batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarrituta, entitate horiei dagokienez duen izaera juridikoa edozein dela ere, dokumentu bat bete beharko du enpresa lizitatzaileak eta beste bat atxikitzen diren bitartekoen enpresak.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

II. ERANSKINA.

PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

Izen-abizenak:

Helbidea:....., PK, NAN:

..... zk.,..... telefonoa, helbide elektronikoa....., bete-betean

bere gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna izatea, bere izenean (edo

....., helbidea:....., PK,

telefonoa eta NAN edo IFZ (pertsona fisikoa edo juridikoa den):

.....), honek deitutako prozeduraren berri izanda,

honako hauek kontratatzea:

ADIERAZTEN DUT:

1) Konpromisoa hartzen dudala hori €-ko prezioan gauzatzeko,

gehi..... €, BEZaren %..... -ri dagozkionak, eta..... epean, eta aipatutako prezioan gastu guztiak sartuta daudela ulertu behar da, garraioarenak barne.

2) Ezagutzen ditudala berariazko klausula administratiboen plegua eta kontratu hau arautuko duten gainerako agiriak, eta oso-osorik eta berariaz onartzen ditudala.

3) Ordezkatzen dudan enpresak indarrean dagoen araudiak eskatutako baldintza eta betebehar guztiak betetzen dituela enpresa ireki, instalatu eta jardunean jartzeari dagokienez.

..... (e) n, 20.... (e) ko..... aren..... (e) (a) n

Sinadura

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

III. ERANSKINA.

BERME-EPEA LUZATZEA

..... jaunak/andreak (helbidea:

PZn

....., NAN zenbakia:....., telefonoa:....., eta posta elektronikoa.

elektronikoa..... Udalarekin prozedura osoa komunikatzeko, bere gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa izanik, bere izenean (edo..... ordezkatuz, helbidea PKn duena)

....., telefonoa, eta NAN edo IFK (

pertsona fisikoa edo juridikoa izatea (zk.), Amorotoko Udalak Amorotoko Udalean aerotermian oinarritutako berokuntza-sistema berri baten hornidura- eta instalazio-kontraturako deitutako prozeduraren jakitun.

Administrazio-baldintzen agirian ezarritako epea (2 urte) luzatzea eskaintzen dudala, eta, beraz, kontratu honen berme-epe osoa urtebetekoa izango dela.

..... (e) n, 2024ko... aren... (e) (a) n.

Sinadura (enpresaren sinadura eta zigilua)